

2020ko abenduaren 19a eta 20a

Adiskideok:

Caritasetik, dei egin gura deutsagu, beste behin be, kristau alkarteari bizia zaintzearen garrantziaz jabetu daiten. Geure bizia, ingurukoen bizia eta barne hartzen daituan eta entzun egin behar dogun planetaren bizia zaindu egin behar dogu.

Gabon aldian, beste inoiz baino errazagoa izaten da zaindu gaituen eta bizia emon deuskuen pertsonen eta inguruen jabetzea. Euren izen eta irudiak gogora ekarteaz batera, bat-batean, esker ona be sortzen da gure bihotzean: Errukarriak gu, eurak inguruan izan ez bagenduz!!

Familia sentiarazi gaitue, giro bero eta gertukoa ahalbideratuz, Frantzisko Aita Santuak dinoan hau gauzateari begira: *“Jainkoaren doe dan bizia onartu eta eraso guztietatik babestu daigun, benetako giza hazkunderako garatu daiten”* (LS 213).

Zainketak, jasoten eta eskaintzen dogunak, familia egiten gaitu, etxean sentiarazten gaitu. Doako maitasunaren ondorioa da. *“Doan hartu dozue, emon doan”* (Mt 10, 8b).

Hauxe dogu, beraz, erronka nagusia: gehien behar daben pertsonak familia sentitu daitezala eta familia sentitu daiguzala, horretarako bidezko lokarriak sortuz zainketen gizartearen eraikuntza gauzatu ahal izateko. Gero eta preminazkoagoa da ekimenak bultzatzea, kristau alkarreak itxaropenerako eremuak sortu daizan eta alkarte abegitsu eta zaintzaile bihurtu daiten.

Une honetan, familian sentiarazten gaituen berotasuna, poztasuna, argia eta zeinu eta eremu guztiak irudikatzen dituan Belengo familiagaitik eskerrak emotea dagokigu. Bene-benetan aprobetxatu daiguzan pandemiak bustitako Gabon honeek mahai inguruan batzeko eta ospatu eta eskertu daigun benetan garrantzitsua dana: bizia, itxaropenaren birsortzea eta bere samurtasuna etenbarik erakusten deuskun Jainkoa bidelagun dogula alkarregaz bidea egiten jarraitzeko ilusinoa.

Bihotzez bizitako Gabon argitsu eta beroa opa deutsuet.



Carlos Bargos  
Zuzendaria

19 y 20 de diciembre de 2020

Estimadas amigas, estimados amigos:

Desde Caritas, seguimos invitando a la comunidad cristiana a subrayar la importancia del cuidado de la vida: la nuestra, la de las personas cercanas, la de este planeta al que debemos escuchar y del que formamos parte.

En estas fechas navideñas es especialmente fácil ser conscientes de todas las personas y entornos que nos han cuidado y han hecho la vida posible. Seguro que junto a sus nombres e imágenes nos surge espontáneamente del corazón un profundo agradecimiento. ¡¡Qué hubiera sido de nosotros y nosotras sin ellas!!

Nos han hecho sentirnos en familia, favoreciendo un espacio cálido y cercano *“donde la vida, don de Dios, puede ser acogida y protegida de manera adecuada contra los múltiples ataques a que está expuesta, y puede desarrollarse según las exigencias de un auténtico crecimiento humano”* (LS 213 Papa Francisco).

El cuidado, el que nos dan y el que damos, nos hace familia, nos hace sentirnos en casa. Es la consecuencia del amor gratuito. *“Gratis lo habéis recibido, dadlo gratis”* (Mt 10,8b).

El gran reto pasa a ser entonces, conseguir que las personas que más lo necesitan se sientan y las sintamos como familia, creando los vínculos oportunos para que la construcción de una sociedad de los cuidados sea posible. Cada vez es más urgente crear iniciativas en las que la comunidad cristiana pueda generar espacios para la esperanza, convirtiéndose en comunidad acogedora y cuidadora.

Es momento de dar gracias por la familia de Belén que representa el calor, la alegría, la luz, y por todos los gestos y espacios que nos hacen sentirnos como en familia. Aprovechemos, más que nunca, estas navidades teñidas por la pandemia para sentarnos y compartir mesa, celebrando y agradeciendo lo realmente importante: la vida, el renacer de la esperanza, y la ilusión de poder seguir caminado juntos acompañados de un Dios que permanentemente nos muestra su ternura.

Que disfrutéis de una luminosa, cálida y sentida navidad.



Carlos Bargos  
Director